

## ROL PARTIDA BATEN ADIBIDEA

Lau lagun literatura eta filmetako esploratzaileen abenturak bizitzen ari dira rol joko batera jolastuz. Josuk, joko zuzendariak, jokoaren une batean deskribapen hau egiten du:

Josu: Harrizko atea mugitzen hasten da eta zuen aurrean ikusten duzue kondairek esaten zuten galeria. Urez inguraturiko plataforma bat -eta marrazki batez laguntzen du deskribapena- ikusten duzue, eta bertan, distira egiten, sekula ikusi duzuen diamante harri handiena, landugabea.

Iratik, George deituriko gizon ingeles aberats diruzale bat jolasten du, monokulo eta guzti. Errifle bat darama bizkarrean zintzilik.

Irati (George): Zubi bat baldin badago, banoa korrika!

Josu: Badago zubi bat bai, egurrez egina, zaharra, eta hezetasunak izorratuta.

Irati (George): Banoa! ea besteak iritsi baino lehen zerbait poltsikora eramane dezakedan!

Jon-ek, bere fantasia den Lara Croft itxurako esploratzaile sexi bat egin du pertsonai gisa. Crora Loft deitu zion argiztapen une batean.

Jon (Crora Loft): Nik errebolberrak atera eta adi geratuko naiz, ziur piztiaren bat irtengo dela nonbaitetik.

Leirek, Annette, adin ertaineko emakume frantses ilustratu bat jokutzen du, hainbat filologiaren eta antropologiaren lizentziatua.

Leire (Annette): George! Ez izan inozoa! Ezingo duzu hain erraz lortu tribu honek jainkoen pare jartzen zuen harria!

Josu: George dagoeneko han dago; bidean zubiaren hainbat egur zati erori zaizkio, baina itsuturik aurrera jarraitu du, atzera bidea zail samar geratu zaiola. Jasoko al duzu harria, George?

Leire (Annette): EZ!!

Irati (George): BAI!!

Josu: Harria zure eskuetan dago, baina badirudi tranparen bat martxan jarri dela. Zerbaitek eztanda egin du zure azpian, eta sortu diren olatuek eta ur korronteek, plataforma azpitik ura presioan ateratzen ari dela adierazten dute. Plataforma ere zartatu egin da, eta kanpotik begiratzen duzuenok ikusten duzue ez dela segurua.

Irati (George): Zubian ahalik eta gehien ibiliko naiz eta jauzi egingo dut besteak dauden aldera!

Jon (Crora Loft): Ertzean jarriko naiz ea lagun diezaiokedan.

Josu: Bota dadoak, ea nolako jauzia irteten zaizun. Crora Loft bertan dago laguntzeko, horrek konfiantza ematen dizu, eta pare bat esku gaizki iritsiz gero. Beraz, puntu gehigarriak izango dituzu dado jaurtiketari gehitzeko.

Iratik, dadoak bota eta puntuak gehitzen ditu. Josuk erabakitzen du ozta ozta lortu duela iristea, eta Crora Loftek heldu egin behar izan diola ez erortzeko. Jauzia justu egiteagatik, Josuk erabakitzen du kolpe bat jaso duela Georgek aldakan eta saihetsetan.

Orain ordea beste arazo batzuk dituzte, urak galeria bete behar duela dirudi, eta irtenbiderik aurkitzen ez badute, bertan geratuko dira...

## ZER DA ROL JOKO BAT?

ROL(Elhuyar): Pertsona batek, giza talde batean, antzerki- edo zine- lan batean, jarduera batean, etab.etan betetzen duen eginkizun edo funtzioa.

Bere izenak adierazten duen moduan, rol batzuk antzezteko jokoa da eta uneoro jokalariez inprobisatua da antzezlari hau.

Jokalariai maneiatu edo antzeztzen duen rol horri "pertsonai" deitzen zaio, edo PJ (Pertsonai Jokalaria) laburtzeko. Pertsonai hauek Joko Zuzendaria (JZ) deituriko beste jokalaria batek ezarritako alegiazko ingurunearekin elkar eragiten dute.

Joko Zuzendaria, zine produktore baten moduan, obraren markoa eta denbora ezartzen ditu eta gainontzeko jokalariek ezagutzen ez duten gidoi bat garatzen du, non protagonistak jokalarien PJ-ak diren.

Jokalaria bakoitzak bere pertsonaiaren izaera definituko du eta argumentuan zehar sortzen diren egoera eta gatazkei izaera horren arabera antzeztzen erantzungo dio. Jokalarien antzezlari hori eta zuzendariaren argumentua, historia inprobisatu bat eratzten joango dira.

Joko hauek errealitatekin desberdintzen diren giropenetan garatu ohi dira. Rol jokoa, lege fisiko bakarrak irudimenarenak dira!

Rol jokoa orokorrean mahai inguruan jokatzeko dira deskribapenak hitzez eginik. Pertsonai bat ekintza bat egitera iritsi daiteken edo ez erabakitzeko, ausazko elementuak erabiltzen dira, normalki dadoak. Badago ordea, rol jokoen beste modalitate bat: Rol Jokoa Zuzenean. Hau, antzerki inprobisatu batera asko hurbiltzen da, mahai inguruan jokatu beharrean pertsona bakoitzak pertsonaiaren lekua hartuta jolasten baitu.

## GAZTETXEAN ROL JARDUNALDIAK, UZTAILAK 19

16:00tan lehenengo taldeekin jardunaldiaren hasiera.

18:00tan bigarren taldeekin jokoen hasiera.

22:00ak inguruan, rol jokoa zuzenean. Jende kopurua maximoak pasako balitz (25 inguru), beste rol partida gehigarri batzuk edota hainbat karta joko berezi antolatuko lirateke.



*ESTRATEGI  
ETA  
ROL  
JOKOEN  
ELKARTEA*

[zuzendaritza@suaker.com](mailto:zuzendaritza@suaker.com)

Jardunaldiaren inguruko informazio gehigarria:  
<http://www.suaker.com/wiki>

Suaker elkartearen web-gunea:  
<http://www.suaker.com>

Cronos gipuzkoako rol federakuntzaren web-gunea  
<http://juegarol.es>